

De Rerum Natura

@zaldiero



Beharra



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

A magoia Mujika Tolaretxipik atzoko bere analisisan zioen «... baina besteak beste eskuin muturraren gorakada izugarriaren ondorioz, gauzak aldatu egin dira eta gehiago alda daitezke. Espainiako ezker blokeak horregatik bilakatu omen du 'aukera historikoa' zena 'behar historikoa'. Temaren atean ere beharra gako. Beharra irakasle. Ez genuen oraintxe ikasi ez dela irakasle hoberik.

Google poeta ona da. Tekla bati kalka, eta ez dakizu nondik irten-go zaizun. Ni, Espainiako ezkerrena azaltzeko atsotitz baten konfirmazio bila nabilen. Betidanik esan izan baitugu «beharra irakasle ona da». «Beharra irakasle» idatzi dut, erretrauaren hedadura eta sakonera maila neurtzeko. Eta Googlek figura poetiko bat itzuli dit, kiasmo bat oparitu. Hitzen ordena aldaketa xume batek esanindar handia izan dezake. «Beharra irakasle-

ren» bila nabilen eta Googlek erakutsi dit «irakasle beharra» handiago dela. Gotzon Garaterengana iritsi baino lehen egin dut topo euskara zein ingeles irakasleen behararekin; irakasle beharra Tafallan eta Euban; irakasle beharra Iralen... «Irakasle beharra» «beharra irakasleri» gailendu zaio sarean. Zerbaitegatik. Nik ere nahiago nuen Pablo Iglesias irakasle, Pablo Iglesias presidenteorde baino.

HIZPIDEAK

EHUtik heldu da aitortza

Eider Goenaga Lizaso
@EiderGoenaga

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren ekarpenari aitortza egin diote. Pisu eta garrantzia berezia duen aitortza, gainera; batik bat, azken urteetan erakunde ofizialek aitortza hori ukatu izan diotelako. EHU Euskal Herriko Unibertsitateak Txillardegizena jarri dio Donostiako Carlos Santamaria zentroan dagoen erakusketaretoari.

Euskaltzalea, euskal ekintzailea, irakaslea eta soziolinguista izateaz gain, euskara batuaren sustatzaile nagusietaiko bat izan zen Txillardegia; baina baita pentsalaría, literatura modernoaren ikurra eta politikaria ere. Alabaina, ETArek sortzaileetako bat ere izan zen, eta garai hartan borroka armatuak zuen zilegitasuna defenditu zuen beti. Donostiako Udala Liburutegiari haren izena jartzeko eskaera anitzi erantzunez, Txillardegia ETako kide ohia izatea «arazo» bat zela argudiatu zuen Eneko Goia Donostiako alkateak. Haren ekarpena ez aitortzeaz gain, ekintza armatuen ziklari amaiera eman behar zitziola publikoki esan zuten lehenengoetako bat ere hura izan zela ahaztuz.

Azkenaldian, pixkanaka, Txillardegiri merezitako aitortza ari zaizkio egiten —horma irudia Antiguan, plaka Arantzazun, omenaldia Korrikan...—, eta, orain, EHUren erakusketaretoa. Omenaldi ofizialen hutsunean pauso bat da atzokoa, baina ez da udal liburutegia.

Nostalgikoak

Euskara neurritz kanpo baloraturik dago. Horrela ebatzi du Maia alkateak, bere iritziz Iruñeko euskaldunak beren ahalbideen gaitetik bizi izan baitira 2019ko maiatzaren 2tik hona, aurreko udal gobernuak euskara arautzen zuen ordenantza onartu zuenez geroztik, hain zuzen. Sei hileko gehiegikeria. UPNko agintariak ohiko bidea hartuta, liburu zaharrean bilatu du normaltasuna berriz ezartzeko errezeta: lehengo menderako bidaia egin eta han eskuratu du soluzioa. Honetan 1997ko euskararen ordenantza da ekarritako *souvenirra*: udal euskal langilerik gabe euskaldunen esku-bideak bermatzen bide zituen



LARREPETIT
Jaime Gelabert

hura, euskara meritutzat hartzen ez zuen ordenantza bera, hizkuntza paisaia erdalduntzeko bidea errazten zuen arautegia. *Revival* da normaltasunaren ordaina Maiaren hiztegiak, eta zantzu askoren arabera erreferentia 1997an baino hamarkada batzuk aurrerago du mandatariaik.

Iruñeko alkateak PSNko zinegotziak bidelagun eta sostengu dituen bora-bidaia atzerakoi honetan. Beren jardutea ikusita, zentzuzkoa da galdetzea zer adierazi nahi ote duen Espainiako jarduneko presidentek Madrilen «gobernu aurrerakoa» osatuko duela puztuta zabalitzen duenean. Madrilgo politikariaren iritzi berekoak izan ote dira Iruñeko PSNko udal ordezkariak?

Francoren lekualdatzea —edo bigarren estatu hileta, ez dago oso argi— alde batera utzita, Sanchezen legegaldiko ondareari erreparatzen baldin bazaio —moral legea eta lan erreforma mantentzea, pobrezia aurkako borroka hutsala, amnistia fiskala jaso dutenen zerrenda sekula ez publikatua, ultraeskuina indarberritzea edo irtenbide demokratikoaren falta Katalunian, besteak beste— ondorioztatzen da aurrerakoitasunaren kontzeptu bera, edo oso antzekoa, ibiltzen dela Iruñean eta Madrilén. Guzoin onerako, espero dezagun Sanchezen bidaie berriek jakin dezatela non duten aurrea eta non atzea, eta bidea argitu diezaiotela gobernu buruari.